

## IZARRAITZ BABES BEREZIKO EREMUA

---

Izarraitz mendiguneko Geoparkearen aldea, hein handi batean, baso-landaketez eta larreez estalita dago. Landazabal horietako batzuk Porruetako eta Sagarretako sakonetan hazten dira, hegoaldeko orientazioa duten kareharrizko mendi-hegaletan.

Eremu irekian hegazti hauek ikusten dira: antzandobi arrunta, arrano sugezalea, zapelatz liztorjalea eta landazabalei eta heskaiei lotutako paseriformeak.

Hostogalkorren basoa ondo ordezkatuta dago Izarraitzen. Hala, pagadiak eta hariztiak leku fresko eta hezeenetan egoten dira. Arteak hosto iraunkorrak ditu eta egutera nahiago du. Alturan, kareharrizko labarraren oineko baso mistoak nabarmentzen dira. Oso habitat urria da eta interes handiko espezieak ditu: azeri-mahatsa, hagina, hurritza edo gorostia. Zuhaitz lepatuek eta zaharrek babes eskaintzen diete organismo txiki askori.

Basoaren oihanartean, Schreiber muskerra, basakatua, katajineta, Europako ipurtatsa edo lepozuria babesten dira.

Harkaitzetako flora ere oso arraroa da, eta hemen garatzen diren sastrakadien artean, pre-txilardiak, iratzediak eta elordiak nabari dira.

Koba eta leizeetan zenbait saguzar espezie interesgarri aurkitu dira, hala nola, ferra-saguzar handia edo Geoffroy saguzarra.



Aitolako tontorraren inguruak



Hagina



Pagadia